

K...eta!
kitto!

2017-VII-7

1.023 zkia.

Udako jaiak sasoi betean



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



39. Amañako jaiak

eibartar guztion gozamenerako



...eta kitto!-ren

itzulpen

zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelarrera,
gaztelertatik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Irakasle talde baten salaketa –

Ekainaren azken asteburuan ikastetxeko irakasle baten aurka izandako erasoaren aurrean, Mogel Isasiko irakasleok babes osoa eta elkartasuna adierazi nahi diogu gure lankideari.

Gertatutakoa erabat gaitzetsi eta salatu nahi dugu, ekintza hori ez baita pertsona baten aur-

kakoa, baizik eta irakasle talde osoari egindako eraso. Horrelako jokoaren aurrean guztion erantzukizuna da jarrera irmoa azaltzea, era honetako gertaerak guztiz arbuiatu eta eredu hezitzaileak bultzatuz.

Mogel Isasiko Irakasle Taldea

– Espainiako selekzioa lporuan: Ez gure izenean –

Asteburuan Espainiako eskubaloi selekzioa izango da lporuan. PSOEk zuzentzen duen Udalak babesten du ekitaldia. Espainiako aparatu ideologikoaren muinetako bat den kirol selekzio bat Euskal Herrira ekarri dute, non gauden garbi gera dakigun euskaldunei.

Baina beste babesle bat Eibar Eskubaloi Taldea da, bere zigilua txartelaren toki nabarmenean ipiniz, Udaletik egin zaion eskaerari men eginez.

Euskal Herrian edozeinek daki Espainiako selekzioari babesa ematea gai oso eztabaidagarria dela eta Eibar Eskubaloi Taldearen barruan ere oso iritzi ezberdinak daudela gai honen inguruan, batzuk Espainiako selekzioei babesik ez ematekoak garelarik.

Ezin daitekeena da gu guztion izenean holako propaganda ekitaldi espainolaren alde egitea bazkideei galdetu gabe. Gai korapilotsuetan parte hartu aurretik bazkideei galdetu egingo zitzaieela uste genuen. Zeren eta holako posizio-

namendu publiko bat hartzea "normalitatearen" barruan dagoela eta bi minututan erabaki ahal dela uste duenak, ezjakinarena egiteaz gain, gaitzo jokatzen ari da.

Elkarteko presidente berriaren erantzuna hau: "Guk eskubaloiaren alde egingo dugu eta ez ditut politika asuntoak nahastuko".

Ezjakinarena, ezkusiarena, inuzentearena... hiru horietako edozein ezin da otzanago egin. Beste norabaitera ziri horrekin. Eskubaloiaren alde diozue? Babesten duzuen Espainiako Federazioarena den selekzio hori da euskal eskubaloi selekzioa nazioarteko lehiaketetan jokatzea debekatzen duena eta euskal jokalariei batek selekzio horretan jokatzeari uko eginez gero betiko zigortzen duena.

Besteak beste, Eibar Eskubaloi Taldeko zuzendaritza berriak egin duena ekintza politikoko ideologiko oso eztabaidagarri bati babesa ematea da. Eta bazkideei galdetu gabe. Larria.

Fermin Lazkano (1 zenbakidun bazkidea)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LOSADURIA.- Arlauzeekin egindako terraza. "Txirixo-Kaleko losaduria, makiñatxo bat kontu esandako lekua".

LOTSAKIZUNA.- Lotsaria eragiten duena. "Pobria izatia ez da lotsakizuna".

astean esanak

"Bikote baten arteko harremanean guztia partekatu behar dela uste dutenek oker daude. Intimitate maila hori konpartitzea kalterako izan daiteke. Maitemintzen garenean, bale, orduan errealtatea aldatzen dugulako eta sentsazioak direlako garrantzitsuenak. Tarte horretan bestea perfektua ikusiko dugu. Baina maitemintzea kronikoa ez denez, guztia konpartitzeko mito horri eusteak arazoak ekarri ditzake. Badira gauzak guretzako bakarrik izan behar direnak. Harremanari buruzko zalantza partekatu aurretik, zure burua ezagutu"

(ANGELA MAGAZ, PSIKOLOGOA)

"Euskararen etsairik handienak ez luke euskararen txantxangorriarena baino metafora hobea aukeratuko: txantxangorria, kukuaren arrautzak hazten dituen txori zoroa. Horiek dira erdara euskara bezain gurea dela esaten digutenak. Egoeraren gaitza hor dago. Euskararen mundua proxenetaz beteta dago: euskaratik bizi dira eta euskararekiko esker txarrekoak dira. Ereiten dena jasotzen da: zer irakatsi diegu haurrei eskolan, euskara ala euskaltzaletasuna? Euskara irakatsi diegu apaizei latina apaiztegian bezala. Zer lortu dugu? Euskaraz dakien erdalduen mordo. Hezkuntza sistema hori fabrikatzeko diseinatuta dago"

(JUAN IGNACIO HARTSUAGA, EUSKALTZALEA)

"Aurkariekin lehiatzea onerako izaten da beti, beste batekin indarrak neurtzeak ondo egiten digulako, baita dominoan jokatzen bada ere. Zenbat eta aberatsago izan, besteen behar gutxiago dugu eta, aldi berean, gero eta alienatuago gaude. Taldearen tiraniatik askatzerakoan onartu behar dugu asko galtzen dugula. Horrez gain, 100 laguneko komunitateetan bizitzeko erabaki gaude, berdin gaur zein aspaldiko mendeetan. Kazetariok ez dugu zergatik gomendiorik eman, baina esan dezakegu ez digulako gure lehenaldia irratitzen. Gaur egun gure ongizateaz baliatzen direnak gure aurrekoek deserriratu egingo zituzten"

(SEBASTIAN JUNGER, KAZETARIA)



PEDRO ALBERDI

Autoa

Gure aitak eta amak ez zuten sekula autorik izan, eta hala, gure haurtzaro eta gaztaroan ez genuen etxean autorik ezagutu. Duela mende erdi, gutxi gorabehera.

Aita zenak tailer txiki bat zeukan, astegunetako ordu guztiak (larunbatekoak barne) zurrupatzen zizkiona.

Jaiegunetan, berriz, mendira joatea zuen gogoko. Club Deportivoko kide izan zen urtetan, eta ardurako karguak ere bete zituen bertan.

Mendi-ateraldietan autoak mesede baino kalte egingo zion, izan ere haren gozamina martxak edo zeharkaldiak egitea zen, hots, herri edo auzoren batetik abiatu eta urruti samar zegokeen beste herri edo auzoren batean amaitu; adibidez, Karakatera igo, gainalde guztia zeharkatu eta Bergarara edo Zumarragara jaitisi.

Ama zenak, berriz, ez zezakeen inola ere halako ibilaldirik egin. Nahi ere ez, bestalde, nahikoa eta gehiegi nekatzen baitzen eguneroko zereginetan. Etxeak eta familiak betetzen zioten denbora guztia, eta pixka bat libratzen zenean, nahiago zuen paseatu, jendeartean ibili, eskaparateak ikusi edo jatatxeren batean mokadu bat egin. Halaber, elizkoia izaki, meza-ostea luzatzea gustatzen zitzaion. Esango nuke bazterrak ikustea ez zela haren kezka edo buruhausterik handiena.

Beste alde batetik, gure aita eta ama probintziako herri banatakoak ziren, eta gurasoak zendu zitzaizkienean, beren jaiotetxera zein jaioterrira joateko grina galdu zuten. Lanari emanak, denbora gutxi zuten aisialdirako; gutxiegi, hura elkarrekin partekatze; eta batere ez, autoaren aukera planteatzeko. Eta gero, berandu izango zuten.

Udako ordutegixa udaleko zerbitzuetan

Udaleko sail eta zerbitzuetan udako ordutegixa sartu da indarrarian. Uztaillian, udal txian daguazun udal sailak eta Pegora Herriarren Zerbitzurako Bulegua asteleheneetik barixakura zabalduko dittue, 08:30etik 13:30era; Portalea, barriz, asteleheneetik barixakura zabalduko dabe, 09:00etatik 20:30xetara (asteburuan itxitta); Euskara Zerbitzua, asteleheneetik barixakura, 09:00etatik 13:00era; Gizartekintza, asteleheneetik barixakura, 09:00etatik 13:00era; Udal Euskaltegixa, asteleheneetik barixakura, 08:30xetatik 14:00xetara (uztaillaren 21era arte, 24tik 28ra itxitta); Andretxea goizez zabalduko dabe, 08:00etatik 14:00xetara (arratsaldian itxitta, zeozer programauta egon ezian); Armagintzaren Museua, bestalde, martitzenetik barixakura egongo da zabalik, 16:00etatik 20:00xetara (astelehen eta asteburuetan itxitta); eta uztaillaren 10etik 28ra, barriz, Juan San Martin Liburutegixa asteleheneetik barixakura zabalduko dabe, 09:00etatik 13:30xetara eta 16:30xetatik 19:30xetara. Uztaillaren 25ian eta 31n dana itxitta egongo da.



euero kostua dauka egunero Udalbus zerbitzuak Udalerako. Une honetan urtero 50.000 erabiltzaile dittu garraio zerbitzu horrek, baiña txartelen salmenta sarreren %10era besterik ez da aillegatzen. Zerbitzuaren kostu osua 180.000 eurokoa da urtero. Udalian dagozen alderdi politiko guztietako ordezkariak hórrek emaitzok hobetzeko proposamenak lantzen dihardue.

San Juan egunian aillegau zan Eibarrera "Etorkizun kilometroak"

Alzheimer gaixuak zaintzen dittuenendako formaziórako programia garatzeko asmuarekin egin dan "Etorkizun kilometroak" ("El futuro es la memoria") lasterketia San Juan egunian aillegatu zan Eibarrera eta, bestiak beste, ekimenarekin bat egin daben Klub Deportiboko kidiak hartu eben parte. Asier Cuevas korrikalarixak, bestalde, Elgoibartik Eibarrera antxixiketari jua zan. Lasterketia ekaiñaren 10ian abiatu zan Cadizetik eta Bilbon amaittu zan Eibarren egon eta hurrengo egunian. Horrekin lortzen daben diru guztia zaintzaillien formaziórako erabiliko dabe.



Primeran San Pedro jaixetan

Beheko Tokia jubilatutako eskutik ospatu zittuen San Pedro jaixak Karmen kalia. Lehen egunian tarteka eurixa egin eban, baiña halanda be arazo barik egin ziran umiendako jolasak eta Gorritiren saia. Programaren barruan toka eta igel-toka txapelketia, Mariachi Dominguez taldiaren emanaldixa, antzerkixa, dantzaldixa eta Kaleetan Kantuz taldiaren emanaldixa be hartu zittuan parkiak eta San Pedro egunian Karmelitetan ospatutako mezan Gospel Bilbao taldekuak kantatzen egon ziran.



Primeran juañ zan dana Guinness errekorra lantzeko ekitaldixan

mobilizau zittuen ehun bat boluntarixuak esandakua formal-formal bete eben eta, azkenian mosaikua osatziak luze jo eban arren, jendiak denpora osuan umore onari eta jai giruari eustia lortu eban eta, mosaikua irudikatuta eguala ikusterakuan, Untzaga eta inguruko kaliañ bete zittuan txalo zaparrada ikaragarriak agurtu eban ekitaldixa. Hori ikusitta bateri baiño gehixagori malkueri eustia kostau jakon eta dana antolatzen jardun daben taldiak egiñten daben baloraziñua oso-oso positibua da: "Guinness World Records erakundiañ erantzuna garrantzitsua da, jakiña, baiña edozelan be gu oso pozik, ekitaldixa

antolatzen hasi giñanian geure buruari ipiñittako helburu nagusiña, hau da, eibartarrak mobilizatzi, parte hartzera animatzi eta jende guztiak horren inguruko barri izatzi lortu dogu eta. Hamar urterako iraupena dakan Euskeriaren Plan Estrategikuaren abiapuntuak oihartzun haundixa izatzi zan asmua, hortik Guinness errekorra lortzeko bota genduan erronka eta jendiaren erantzuna zoragarrixa izan dala begibistakua da: Eibarren euskeriari lotutako ekitaldi baten harira era guztietako herriñtarrak batziña gauza haundixa da. Jendiak ekimenari babesa erakutsi detsa lehelengotikan eta, horregaittik, behin eta barriz emon nahi detsaguz eskerrak parte hartu eban jende guztiari".

Eibarren Akebai plataformaren ekimenez ekaiñaren 22xan Untzagan egindako ekitaldixa ikusgarrixa ez eze benetan biribilla izan zan eta, Guinness errekorra lortu ala ez, antolatzaiñliak pozarren dagoz. Ekitaldixan parte hartzeko izena emon eban jendiak ekitaldirako



Ekitaldixan grabau zan ikusentzunezko materixala, eskatutako beste guztiarekin batera (partehartzaiñliak eruan eben txip guztien zenbaketaren emaitzak eta lekuñko independientiak egindako konfirmaziñuak) Guinness World Records erakundekueri bialdu detsa Londresera eta, errekorra ontzat emoten daben ala ez erantzun arte, zain egotia besterik ez dago. Erakundiak berak aurreikusten dittuan epiak betez gero, irailaren amaierarako erantzuna jaso biharko litzake. Bixen bitartian, Guinnessaren atzian dagan benetakorri erronka Eibar euskalduntziña da eta hori lortziña gure esku baiño ez dago.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra 943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

OTAOLA
 Etorbidea, 13
 -EIBAR-
 943-200883

%
10

%
20

%
30

%
50

beherapen handiak

GOIKO-LUZ dendan

www.kolorlan.com 667 54 89 16



KOLORLAN

PINTURA LANAK S.L

kale izena pertsonaiaren izana

Lehen Elgeta Bidea zen kalea bi zatitan erdibitu zen 1979an. Ubitxatik gora **SOSTOATARREN** kalea da gaur egun. Sostoaarrak Eibarko bi anaia izan ziren, nahiz eta elgetatarren semeak izan. Andres Sostoa Zuluaga Eibarren jaio zen 1745ean, eta Manuel bere anaia 1749an. Biak organojole eta konpositoreak izan ziren, eta bere garaian ospe handia lortu zuten. Manuelen obra batzuk Arantzazuko Artxiboan aurki daitezke. Bere lanaren ezaugarri nagusia herrikoitasun nabaria da. Horregatik, Aita Donostiak berak ere goraiptatu zuen bere sasoiari. Kaleaz aparte, badago Eibarren Sostoa izena duen abesbatza ere.



egilea:
JAVI ZABALA

Dibujo Eskolarekin elkarlanean



Juan Luis Cristobal
2009tik izan da koordinadoria Eibarren.

Eusko Alkartasunak batzorde eragillia barriztu dau

Eibarko Eusko Alkartasunak, bere Batzarren bittartez, tokiko batzorde-eragillia barriztu dau, alderdixaren kongresuaren ostian organuak barrizteko kanpaina berruan eta, aditzera emon dabenez, aurrerantzian Eibarko Batzordiarekin koordinadoria Iñaki Penedo izango da, Juan Luis Cristobalen orde. Batzordeko gaiñontzeko kideak, barriz, Alberto Unamunzaga, Belen Martinez eta Gorka Novoa izango dira, udaletxeko ordekarixa dan Josu Cristobalekin batera.

Batzorde eragille barrixak idatziz azaldu dabenez, "2009az geroztik Juan Luis Cristobalek, tokiko koordinadore modura, eta Carmen Apellanizek, diruzain lanetan egin dabenez biharra" azpimarratu nahi dabe. Horrekin batera, dituen helburuen barri be emon dabe: "Batzorde barrixak EA-ren berrindartzia eta bere espazio politikuaren hedapena izango ditte helburu, ordezkaten dogun gizartiarrendako tresna baliagarria izaten segitzeko, azken 30 urtietan egin dogun bezala. Eta, horrekin batera, PSOE eta EAJren eredu zaharkituaren aurrian, EH Bildu anitz eta zabala osatzeko jardungo dogu biharrian".

pasau ahal daben esateko. Horrekin batera, eguzkixa hartzeko aholkuak eta azalaren azterketia egitteko argibidiak biltzen dituan liburutxua banatuko dabe eta jendiaren zalantzak argitzen ahaleginduko dira.

Azaleko minbizixaren kontrako kanpaina martxa betian


AEEC Minbiziaren Aurkako Elkartek, urteroko martxan, azaleko minbizixaren aurkako kanpaina hasi dau eta, horren



barruan, datozen hiru astietan Gipuzkoa ziharkatuko dabe alkarteko profesional eta boluntariuak, minbizi mota hori izateko arriskuaz zein eguzkixa hartzeko ohiturari buruz jendia ohartarazteko. Aurten umieri arreta berezixa eskinduko detse. Eibarren eguazten goizian ibilli ziran eta datorren eguaztenian atzera be etorriko dira, Muzategi ingurura, 10:00etatik 13:00era. Ipiñiko daben mahaixan nahi dabenari azaleko melanina mailla neurtuko detse, horren arabera eguzkopian zenbat denpora

Presuak etxeraziaren aldeko LAB-en alkarrataratzia

Debaldea eskualdeko LAB sindikatuak deittuta, aurreko astian euskal preso eta iheslari politikuak etxeraziaren aldeko alkarrataratzia egin zan Untzagan, udaletxe parian. Sindikatuak hillero antolatzen dau hori eskatzeko ekimenen bat eta aurrekuan Eibarren batu ziran LABeko ordekarixak. Konzentraziñua amaituta egin zittuen adierazpenen arabera, "aittatutako helburua lortze aldera, jende guztiaren inplikaziñua biharrezkua dala pentsatzen dogu eta, illdo horretan, bihariñen eremutik, IREKI ekime-



nak, Euskal Herri maillan ixa 90.000 siñadura batu eta Gatazkaren Konponbiderako Foro Sozialaren eskuetan laga izana txalogarria eta positibua begittantzen jaku".

Eguaztenian banatuko ditue 27. Toribio Etxebarria sarixak

Datorren eguaztenian izango da 27. Toribio Etxebarria Sarixak banatzeko ekitaldixa, 11:00etan Tekniker Fundaziñuaren egoitzan eta, bestiak beste, Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusia, Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburua eta Miguel de los Toyos alkatia han izango dirala aurreratu dabe. Manuel Varela SILOko zuzendarixak, bestalde, «Erosketa publiko berritzaile lehiakortasunerako motor bezala» konferentzia eskainiko du ekitaldixan. Epaimahaixak ha-



laz egindako azken ediziñoko irabazlien talde-argazkixa.

mar finalistak, bosna kategorixa bako txian hautatu ditte, sarixetara aurkeztu diran 31 hautagaitzen artian: KirolDna, Naiz Fit, Lagundu ID, Ingenious Membranes eta Blackbinder («Ideiak eta proiektuak»

kategorixan) eta Oreka Training, Addilan, HWS, Prospero Biosciences eta Home («Enpresa Berria» kategorixan). Irabazliak datorren asteko ekitaldixan emongo ditue ezagutzera.

Energixa barriztagarrixetan oiñarritutako teknologixa erakutsiko dabe bixar

Ekaiñaren 21ian mundu mailan gogoratzen dan Eguzkixaren Nazioarteko Egunarekin bat egin dau udalak, baiña San Juan jaixak tartian, horren harira antolatu dituen jarduerak uztaileko lehen egunetan izatia erabagi dabe eta aste honetan eguzkixari buruzko hitzaldixa emon dau Jose Antonio Carrasco, Izarbe Astronomia Elkarteko kidiak. Eta bixar goizian, 11:30xetatik 14:00xetara, Eibarko Ingenieritza Tekniko Industrialeko Unibertsitate Eskolaren eskutik, energixa barriztagarrixetan oiñarritutako teknologixa, eguzkixana tartian, erakutsiko dabe eta, horrekin batera, gure eguneroko bizimoduan teknologixa hori zelan aplikatzen dan ikusteko aukeria egongo da Untzagan. Erakusketan, bestiak beste, "alSol



1.4" eguzki-sukaldia, Stirling eguzki-motorra, eguzki-auto elektrikua, eguzki-xafla batek sortutako hidrogenoz elikatzen dan automobilla eta eguzki-xafla fotovoltaikoak egongo dira ikusgai. Erakusketarekin batera, energixa barriztagarrixen inguruko eskulan-taillarrak antolatu ditue umiendako eta argindarraren fakturak hobeto ulertzen laguntzeko beste taillar bat be egongo da martxan.



Sorbak bedeinkatu zittuen Azittaiñen

San Juan egunian meza berezixa ospatu eben Azittaingo elizan, ohitura zaharrari jarraituta sorbak bedeinkatzeko. Izan be, herriko basarrixetan sorbak egitteko ohitturiari eusten detse askok gaur egunian be. Aintziña, sorbak bedeinkatzera Arratera juaten ziran, gero Ospitaleko kaperara eta gaur egun Azittaingo elizan bakarrik bedeinkatzen dira. Urte osuan gorde eta gero, hurrengo urteko San Juan suan erreko ditue aurten bedeinkatutako sorbak.

MARITXU AGIRREBEÑA ARRIOLA

4. urteurrena: 2013-VII-7



*Zuk emandako maitasunak
gurekin jarraitzen du*

Maite zaitugu, Amama



ASOLA BERRI IRU TXIRLO ELKARTEA

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Elkartean jatorria Mandiola bailaran dago. 1950. urtean Victor Ugarteburuk merendero bat jarri zuen Asola Berri baserrian; bertan bazkariak, bokadilloak eta edariak saltzen ziren, eta domeketan joaten ziren familiei aisialdirako aukera bat eskaintzeko asmoarekin bolatoki bat jartzea erabaki zuen. 1962. urtean Asola Berri kirol elkarte sortu zen bolatokiko 30 bazkiderekin. 1968an elkarte Arrate auzora eramatea erabaki zen. 70. eta 80. hamarkadetan Ospitala, DYA eta Odol Emaleen elkarten aldeko txapelketak egiten ziren. Bestalde, sasoi hartan 3 aldiz irabazi zuten Bakailao Txapelketa, eta beste behin tortilla txapelketa. 2002an Asola Berriko taldetxo bat Venezuelara joan zen txapelketa batean parte hartzera eta txapeldunen garaikurrekin bueltatu ziren.

Ekintza nagusiak

Zenbaezinak dira urte hauetan Asola Berriko gizonetako, emakumeetako zein bikoteetako taldeek lortu dituzten garaikurrak. Asola Berriko guztiak dira Eukadiko Iru Txirlo Federazioko kide. Aipatu beharra dago elkartean oso sukaldari onak daudela. Urtean 300 arkume burduntzian erretzen dituzte. Martxoaren 19an eta urriaren 12an anaiarteko bazkariak egiten dira, eta amaieran iru txirlo sariak banatzen dituzte. Gaur egun 48 bazkide inguru daude elkartean, 3 emakume eta 45 gizon, eta azken aldian jende gazte asko ari da sartzen elkartean.

Telefonoa: 688 85 95 45
Helbidea: Arrate bailara, 31
e-maila: s.d.b.asolaberri@gmail.com



2012an elkartearen 50. urteurrena ospatu zuten.

EIBARKO LAMBRETTA KLUBA

Helburuak

Lambretta motorren gainean gozatzeko eta, batez ere, Lambretten afizioaren bitartez Eibarko ondare industrial berreskuratzeko helburuarekin sortu zuten kluba 2003an. Orduetik, hamarnaka Lambretta berreskuratu eta zaharberritu dituzte, eta kalean dabilta orain. Eibar eta inguruko herrietako 60 bazkide inguru dira taldean, eta jende gaztea erakartzea da euren nahietako bat.

Ekintza nagusiak

- Motorren beharra duen edozein ekintza estetiko eta zaratatsuetan parte hartzeko prest daude. Ekintza kulturaletan, Erregeen kabalgotan, Eibarko Txirindularitza Elkartearekin Valentziaga Memorialean eta Espainiako Itzulian, eta Eibar KE animatzen Donostia eta Bilbon ibili dira, besteak beste. Kolorea ematen saiatzen dira motorren gainean gozatuz.
- Hilean behin Lambretta motorren gainean irteera bat egiten dute.
- Urtean behin kontzentrazioa egiten dute herrian, eta asteburu osoko egitarau bete prestatzen dute.
- Gonbidatzen dituzten ekintzetan parte hartzen dute Bilbo, Lasarte, Burgos eta beste hainbat herrian; eta Ingalaterra, Frantzia eta Italian ere egon dira EuroLambrettan.

Telefonoa: 617 747 591
e-maila: asier1964@gmail.com
webgunea: facebook.com/clublambrettaeibar
Kontaktua: Asier Garin



Eibar eta inguruko herrietako 60 bazkide inguru daude elkartean.

Aurreko barixakuan aurkeztu zuten, ohikoa denez, Amañako Euskadiko Kutzako bulegoan, 39. Amañako Jaietako egitaraua. Aurten, berritasun moduan, jaietako hasiera adierazten duen txupinazoari beste jaiegun batek aurrea hartu dio. Aurreko asteburuko zapatuak, oraingo asteburu betea iragartzeko edo, hainbat ekitaldi izan zituelako, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazok urtero eskaintzen duten euren azken lana tarteko. Jarraian izan ziren txokolate-janek, ogitarteko eta pintxoek paso eman zioten The Original DJ Guass 80-ren abesti sortari.

Amañako jaiak, lau hamarkada betetzeko bezperan, hiru taldeko kontzertuarekin jarraitzen dute

Danbor doinuek orain dela mende laurdena pasata hasi ziren Amañako kaleak alaitzen. Iaz umeen danborradaren 25 urteak ospatu bazituzten Amañan, oraingoan helduena iritsi da kopuru horretara, zilarrezko ezteiak ospatzen. Hori dela-eta, oraingoan danborrada horretako bultzatzaile nagusienek izango dute gaurko txupinazoa botatzeko ohorea: Jesus Mari Olmedo "Kata", Jose Luis Ca-

lle "Mariatxi" eta Luis Alberto Narbaizak osatzen duten hirukoteak jaurtiko du txupinazo hori 19:00etan, kuadrilen jaitsierari amaiera emanda. Danborradakoek bihar gauean, euren emanaldiaren erdian, beste omenaldi bat jasoko dute Amañako jaietako antolatzaileen eskutik.

Behin txapligua zerura jaurtita, Ermuko Irulitxaren kalejirak, Gorritiren umeendako joko-jaialdiak, Sakatu elektro-txarangaren martxa paregabeak eta entzierro txikiak gaurko ekitaldi nagusienari eskainiko diote lekukoa. 23:30ean hasiko den kontzertu itzelak aurten Stai Zitto ermuarren, Su ta Gar eibartarren eta Hamlet madrildarren abestiak ekarriko dizkigu. Urteak eta urteak daramatza Jose Antonio Alberdi "Gomak" hiru talde bikain baten prezioan eskaintzen (hau da, doan) Eibarko eta inguruko musika zaletuei. Buruhauste bat baino gehiago eragiten dion arren, ondo asmatzen du. Hala ere, azken aldiari SGAE du atzetik, diru eske eta arazoak sortzen. 40.000 euroko zor horri aurre egiteko laguntasuna aurkitu dute Amañako Jai Batzordekoek Maite Markuerkiagari burututako ekimenean: mundu osoko 120 foball talderen kamiseta ofizialak zozketatuko dituzte, 2'5 eurotan salduko diren 16.000 boletoen bitartez. Irailaren 16an erakusketa zabalduko dute Untzagako Jubilatuen Etxean zozketatuko diren kamiseta guztiekin.

Aurreko barixakuan egindako jaien aurkezpenean, Jai Batzordeak Norica enpresa




ere izan zuen kontuan, aurten mendeurrena ospatzen duelako; eta baita auzoan azken urtean hildako hainbat lagun ere.

Hilaren 14an amaituko dira jaiak

Bihar eta etzi jaiegun beteak izango badira ere (24. orrialdean duzue egitarau osoa), datorren asteko barixakurako gorde dituzte hainbat ekitaldi. Horrela, egun horretan auzoko jubilatuekiko bazkaria izango da Untzaga Plaza hotelean eta gauean bertso-afaria, Sustrai Kolina eta Onintza Enbeita bertsoariekin, oraingoan Amaña SCR elkarte gastronomikoan.



Amañako auzoko jaietan ez da gose askorik izaten, sabela ondo betetzeko aukerak egunero izaten direlako.



JOSE ANTONIO AGIRRE ARRIOLAREN 6. URTEURRENA (2011-VII-4)

*"Sei urte pasa badira ere,
gure bihotzetan jarraitzen duzu"*

ZURE FAMILIA



Urteko hilabete askotan toki estalietan hotzetik ihesi ibili ostean, udako temperatura atseginek kalean egotera gonbidatzen gaituzte. Eta jendea non, ekintzak han. Zinea kalera aterako da berriz ere uda honetan, lau urteren ostean. Coliseoko pantailak, bestetik, atsedena hartuko du irailaren erdialdera arte.

Abuztuaren 3, 10, 17 eta 24an kalean zinea ikusi ahal izango da. Aspaldiko ohitura da Untzagan pantaila zabaldu eta pelikula eskaintzea, baina azken lau urteetan ez da aukera hori eman. Eguraldia lagun bada, aipatutako egunetan 22:30ean *“pantaila puzgarria”* kokatuko da harmailak dauden Untzagako parkean Patxi Lejardi zinegotziaren berbetan; eta euria eginez gero, udaletxearen arkupean emango dira filmak. *“Harmailek zerbait berezia eskainiko dutela uste dugu”*, Jose Luis Gonzalez ‘Poxpolo’ kultura teknikariaren iritziz.

Aurreko urteetan UNI Eibar-Ermuakoak arduratzen ziren kaleko zineaz, *“baina aurtan Servifilms enpresak eskainiko du zerbitzua”*. Gonzalezek adierazten duenez, *“kalean zinea ematea eskatzen zuen jendeak eta jasotako proposamena onartzea erabaki genuen”*. Aurreko edizioetan *“100 eta 300 ikusle inguru batzen ziren emanaldietan, ea aurtan nolako harrera duen”*, egiten du gogoeta teknikariak. Eskainiko diren pelikulei dagokionez, abuztuaren 3an ‘Alicia al través del espejo’, 10ean ‘El pregón’, 17an ‘Zootropolis’ eta 24an ‘Mi amigo el dragón’ izango dira ikusgai.



Coliseoko eskaintza itxita

Kaleak zineari atea irekitzen dizkion bitartean, Coliseoak itxi egingo dizkio irailaren 16ra arte. Uda inguruan ikusle kopuruak behera egiten du eta hori da hilabete bi hauetan Coliseoan zinea ez eskaintzeko arrazoi nagusia. *“Zinea eskaintzen duen enpresak errentagarritasunari eutsi behar dio eta ezin ditu gale-rra handiak eduki. Ikusi dugu uztailean eta abuztuan ez dagoela etekin handirik eta gastuak handiak direla, beraz, enpresarekin bildu eta hilabete hauetan zerbitzua ez eskaintzea erabaki dugu”*, dio Gonzalezek.

Kultura teknikariak eta Kultura eta Eus-kara zinegotziak normaltzat ikusten dute udan ikusle kopurua jaitea. *“Bi baldintza hartu behar dira kontuan, eguraldia eta pelikula. Eguraldi eguzkitsu eta beroarekin*

jendea ez da zinera hurbiltzen; eta pelikulari dagokionez, ospe handikoa bada, ikusleak izango ditu, bestela zaila da jende asko etortzea”, Gonzalezen berbetan.

Ikusle kopurua gora

Azken urteetan gorantza egin du Coliseoko zinema ikusle kopuruak eta aurtengo datuek diotenez joera horri eusten zaio. *“2013an 22.687 ikusle izan ziren Coliseoan zinea ikusten, 2014an 25.363, 2015ean 30.114, 2016an 30.899 eta aurtan, ekainera arte, 15.770 lagun hurbildu dira”*, Udaleko Kultura sailak dituen datuen arabera.

Areto SL da gaur egun Coliseoko zineaz arduratzen den enpresa, eta 154 pantaila kudeatzen ditu 40 bat zentrotan. Gonzalezek adierazi digunez, *“500etik gora emanaldi eta 120 pelikula eskaintzen dira urtean Coliseoan”*. Estreinaldiak, entsegu-filmak eta mota askotako pelikulak ekartzen saiatzen dira Kultura teknikariaren berbetan. *“Euskarazko filmak ekartzen ere saiatzen gara, euskaraz bikoiztutakoak zein ekoiztutakoak”*.

Urte hasieran ‘Coliseoaren laguna’ txartela jarri zuen martxan Udalak, baina arduradunek ez dute igoerarik somatu ikusle kopuruan. *“Jarriztaile leialek egin dute bat ekimenarekin eta eurak ia beti joaten dira emanaldietara”*, Gonzalezen berbetan. Txartela ordainduta Coliseoko emanaldietan deskontuak lortzen dira eta azaroan kanpaina egingo da berriz ere 2018ra urtera begira. Bitartean, abuztuan doan ikusi ahal izango dira pelikulak Untzagan.



Coliseoak atea itxiko dizkio zineari irailera arte. Untzagak hartuko du bere tokia abuztuko egunetan.

IK4-Tekniker zentro teknologikoak enpresa-inkubagailu teknologiko berria inauguratu zuen joan den astean. Bertan, teknologia aurreratuko proiektuek euren lehen pausoak ematen, garatzen eta hegan egiten ikasiko dute. Habiak sei gune izango ditu, eta BIC Gipuzkoak eta Atten2-k bete dituzte lehen biak. Inkubagailuak eragile nabarmena izan nahi du eskualdeko ekonomia eta industria garatzeko orduan, eta Eibarko parke teknologikoaren germena bilakatu nahi du.



IK4-Teknikerren 2. solairuan kokatzen da inkubagailua. Ekhi Belar

Teknologia habia Teknikerren hegapean

Azitaingo poligonoaren goialdean, Iñaki Goenaga kaleko 5. zenbakian, IK4-Teknikerren eraikuntza erraldoiak bere oinetan dauka Eibarko hiria. Zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia dauka teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta berau goi-mailan kokatu den moduan, bidearen hasieran laguntza eskaini nahi izan die hainbat proiektuari. **Alex Bengoa** IK4-Teknikerreko zuzendari nagusiaren berbetan, *"29 spin off, start up-ak eta hainbat enpresa sortu dira, eta horietako askok martxan jarraitzen dute oraindik"*.

Testuinguru horretan sortu da enpresa-inkubagailu teknologiko berria IK4-Teknikerren -2 solairuan. *"Eibar lehen izan zena berriz izatea nahi dugu"*, adierazi zuen **Alex Arriola** Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietateko (SPRI) zuzendari nagusiaren inkubagailuaren aurkezpenean. Horretarako, garran-

tzitsutat jo zuen berau Teknikerren kokatzea. *"Hurbiltasunak garrantzia dauka eta sinergia handia sortzen da"*. Bestalde, teknologikoki aurreratutako proiektuak garatzeko enpreseki laguntzeak, eibartarrei ere mesede egin ahal diola azpimarratu zuen. *"Hiri ekintzaile eta dinamiko honetan lanpostu kualifikatuak sortuko lirake"*.

Erreferente berrikuntza eta ikaskuntzan

BIC Gipuzkoak (lehen BIC Berrilan zena) kudeatuko du inkubagailu berria, eta eragile nabarmena izan nahi du inguruko ekonomia eta industria garatzeko orduan. Erreferente bihurtu nahi du berrikuntza eta ikaskuntzaren arloan Euskal Herri mailan.

BIC Gipuzkoak 20 urtetik gorako eskarmentua dauka enpresa berritzaileak sortzeko prozesuetan laguntzeko orduan. 311 enpresa sortzea sustatu du bere ibilbidean zehar eta horien %80ak bere jar-

duera garatzen jarraitzen du gaur egun. **Ainhoa Aizpuru** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingu-runeko eta Lurralde Oreekako Diputatuak adierazi zuenez, *"BIC Gipuzkoa motor garrantzitsua da eta oso beharrezkoa da dena martxan jartzeko"*.

Gipuzkoaren ekintzailetasuna goraiatu zuen Aizpuruk, baina Eibarko hiriaren izaera batipat. *"Ekintzaileen jaioterria da eta izpiritu hori indartu behar dugu"*. Horren bidean ari dira elkarlanean erakunde publiko zein pribatuak. Eibarko Udalak 200.000 euro bideratu ditu instalazioak egokitzeko obrak gauzatzeko eta **Miguel de los Toyos** alkateak alde guztien batasuna aldarrikatu zuen. *"Guztion artean gauza handiak lortzeko gai izango gara"*.

Guneak betetzen

Ekain Olaizola eskultoreak inkubagailu honetarako propos sortutako lan batek ematen du ongietorria gune berrian. *"Etor-kizun oparoa duen eskultorea da"*, Marisa Arriola BIC Gipuzkoako zuzendari gerentearen iritziz. Etor-kizun oparoa, inkubagailuaren guneetako batean dagoen Atten2 enpresak izatea espero duena moduan.

Teknikerren spin-offa da Atten2, eta li-neako sentsore optikoen ikerketan, ekoiz-penean eta salmentan espezializatutako enpresa da. BIC Gipuzkoa dago beste gune batean, *"eta garatzen ari diren beste bi startup sartzeko lanean dihardugu"*, Arriolak adierazi zuenez. Habia eginda dago, orain hegan egin nahi duten proiektuak falta dira bertan.



Atten2 enpresak bete du inkubagailuaren sei guneetako bat.

Belztu segurtasunez!

Badakit eguraldi honek apur bat zoratuta gaituela, baina uda betean gauden honetan, gutxi geratuko dira herrian oraindik ere hondartza zapaldu gabe. Ba jakizue, Massachusetts Hospitaleko ikerketa talde batek aurkitu duenaren arabera, laster ez dela beharrezkoa izango eguzki-pean ordu luzeak pasatzea gure gorputzak belzteko.

Orokorrean eguzkitan gaudenean gure larruazaleko zelula batzuek, melanozitoek kasu, melanina gehiago sortzen dute azalari pigmentu ilunagoa emanez. Baina ez hori bakarrik, melaninak izpi ultramoreetatik ere babestu egiten gaitu. Denbora luzez eguzkitan egoteak ordea, izpi ultramoreek gure azala erretzea dakar, ondorioz, azaleko zelulen material genetikoa kaltetuz. Honek

mutazioak sortu ditzake larruazaleko zeluletan, kontrol gabe haziko lirateke azkenik tumorea sortuz, eta beraz, azaleko minbizia.

Lehen aipaturiko ikerketa taldeak melaninaren sortze prozesua handitzen duen molekula bat topatu du, SIK inhibitzaileen familiako molekula bat. Lehendabizi laborategi mailan erabili dute, melanozito zelulen kultiboari molekula hau gehituta, melanina gehiago sortzeko gaitasuna due-



la erakutsiz. Ondoren, molekula hau kremazko tratamendu bihurtuta, saguetan frogatu dute. 7 egunetan zehar krema aplikatuz, saguen azalaren iluntzea nabaria dela diote, eta ez hori bakarrik, tratamendua amaitu eta 40 egunetara, azalaren kolorea oraindik ere antzematen dela. Azken proba bezala, molekularen erabilera giza azalaren ehun zatietan frogatu dute. Kasu honetan ere, 8 eguneko tratamenduaren ostean azalaren pigmentazio maila areagotu egiten dela ikusi dute.

Aurkikuntza hau esanguratsua da, era berean azala belztu eta eguzkiak sorturiko izpi ultramoreetatik babesteko gaituen krema sortzeko aukera ematen duelako, era berean azaleko minbizia ekiditeko tresna berri bezala erabiliz. Hala ere, produktua



iraia muñoa
IKERTZAILEA

ren segurtasuna frogatzeko lan ugari dute ikertzaileek, gure supermerkatuetan belzteko krema osasungarri hau ikusi aurretik.

ALBISTEAN GEHIAGO SAKONDU NAHI DUENAK, "CELL REPORTS" ALDIZKARI ZIENTIFIKOAN ESKURAGARRI DU ARTIKULUA (DOI:10.1016/J.CELREP.2017.05.042).

Udarako etxeko lanak, bai edo ez?

Uda hastea batzuentzako eskola oporren sinonimoa da! Hemendik aurrera ohikoa izango da eguneko momentu oro kalean adin guztietako umeak eta nerabeak ikustea. Aste batzuetan zehar, behintzat, ez gara egongo ordutegiaren menpe eta egun lu-

zeez gozatu ahal izango dugu. Egun hauetan ere eskola askok fitxak edo opor-liburuak bidaltzen dituzte. Sasoi honetan liburu-dendak beteta daude!

Ume askorentzat fitxa bat egitea edo opor-liburuko orrialde bat egitea jarduera polita eta entretenigarria da, beraz, gustura aritzen dira sinonimoak bilatzen edo buruketak ebazten. Baina, beste ume batzuentzat, eta euren gurasoentzat, udako eskola zereginak, irailan entregatu beharrekoak, amets gaizto bihurtzen dira.

Aita! Ama! Zure etxeko egoera hau bada, proposamen desegoki batekin nator: **ez derrigortu zure seme-alaba etxeko lanak egitera!**

Gustura egiten baditu, ados! Baina, fitxa bat egin behar duela edo liburuak irakurri behar duela esaten diozun bakoitzean, erabat gogoz kontra egiten baldin badu, argi dago ez diola inongo etekin akademikorik eta emozionalik aterako.

Honaino irakurrita, gutxienez bi galdera izango dituzu:

1. Baina ikasitakoa ez zaio ahaztuko? Ez du erreparatzeko beharrik?

Jakina, ikasitakoaren zati bat ahaztu egingo zaio, baina ez bakarrik uda honetan, bizitzan zehar ere ikasten duen guztia galtzen joango da (helduak eskolan ikasi genuen guztiarekin gogoratzen gara?) Beraz, lasai hartuko dugu! Ikasten duguna praktikan jartzen ez badugu galdu egiten da.

Baina ikasteko gogoak, gauza berriak ezagutzeko nahiak edo/eta proiektu pertsonalak garatzeko desioak, bai mantentzen dira, udan eta bizitzan zehar. Beraz, martxan jarri ditzazkegu!

Diseinatu ezazu zerranda bat, zure txikiarekin egin ditzakezun jokoekin, irteerekin... eta ikusiko duzu udak ematen dituen ikasteko aukera guztiak! Ez dira ideia sofistikuak izan behar. Adibidez, hondartzara baldin bazoazte eta umea hondarrarekin aritzen bada, maskorrek eta harriak

batzen baditu, uretan txipli-txiplan baldin badabil, tunelak edo gazteluak eraikitzen baditu... artea, gorputz-hezkuntza, matematika eta ingurunearen eza-guera lantzen egongo da. Baina, batez ere, sozializazioa, jarrerak eta harremanak garatuko ditu.

Uste dut ikuspuntua aldatu behar dela. Kontziente izan behar gara umeak une oro ikasten ari direla.

2. Eta irakaslearekin, zer?

Jada, proposamen desegokia dela esan dizuet! Nik irakaslearekin hitz egingo nuke eta nire printzipio pedagogikoak eta heztekoak adieraziko nizkiola. Era berean, udako planen zerranda erakutsiko nion eta hauek guztiak nire txikiaren garapen akademikoan eta emozionalean izango duten eragin positiboak erakutsiko nizkieke.

Hemen nire iritzia. Zurea zein da? Etxeko lanekin edo gabe, ondo pasa oporrak, gozatu zure seme-alabekin eta izan zoriontsu!





iratxe vazquez
PSIKOPEDAGOGOA

Robotika eta bideojokoko tailerrak uda honetan Debabarrenean

Debabarreneko udalek, Debegea garapen agentziaren bitartez, eskualdeko haur eta gazteen artean bokazio teknikoak sustatzeko asmoz, uda honetarako 10 tailer teknologiko antolatu dituzte. 'Gazterobotika' izeneko hezkuntza-egitasmoaren helburua, "haur eta gazteen artean zientzia, teknologia, ingeniari-tza, artea eta matematikarekiko interesa piztea" dela diote arduradunek.

Azaldutakoaren arabera, "20 orduko tailerrak dira, 5 goizetan banaturik, eta 2001. eta 2009. urteen artean jaiotakoei zuzenduta daude. Talde lana sustatuz, gaztetxoek euren robotak eraiki eta programatu dituzte. Teknologiarekin ikasi, jolastu eta ondo pasatzeko aukera izango dute gazteek. Robotikaren mundua ezagutzeaz



gainera, bideojokoak sortzen irakatsiko zaie. Tailerrak euskaraz egingo dira eta Doplay enpresak emango ditu".

Eibarren ez ezik Deba, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mu-

triku eta Sorluzen ere izango dira robotika eta bideojoko tailerrak. Eibarren uztailaren 17tik 21era eta irailaren 4tik 7ra eskainiko dituzte eta parte hartzeko 30 euro ordaindu behar dira (udalek diruz lagundutako tailerrak dira). Tailerretarako izen-ematea zabalik dago www.gazterobotika.eus webgunean (plaza mugatuak dira).

IKASGELA IBILTARIA BISITAN

Kode_tu ekimenaren baitan ekainaren 29tik uztailaren 30era Gipuzkoa zeharkatuko duen Ikasgela Ibiltaria martitzenean Eibarren, Txaltxa Zelaian egon zen eta, orain arte bisitatu dituen beste herrietan egindakoaren bidetik, gurean ere ordenagailu eta teknologia berriei lotutako gaietan trebatzeko aukera izan zuten gazteek, kanpainako autobusean eskaintzen dituzten



dohaineko ikastaroei esker. Foru Aldundiak, Orona Fundazioak eta Kode-Eskolak sustatu dute ekimena, Irizar enpresaren laguntzarekin. Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Heziketa Bereziko ikasle eta irakasleen sentsibilizaziorako heziketa kanpaina da Ikasgela Ibiltaria.



Kanpainarekin teknologiaren aldeko jakinmina eta bokazioa sustatzea lortu nahi dute eta, horrekin batera, programazioaren ikaskuntzaren bitartez 8-16 urte bitarteko haur eta gazteen artean teknologien erabilera egokia eta sortzailea bultzatzea.

Euskadiko I. Hezkuntza Robotika Txapelketa irailen

Bestalde, "Gazterobotika" egitasmoaren baitan, Euskadiko I. Hezkuntza Robotika Txapelketa egingo da irailaren 23an Eibarren, Astelena frontoian. Egitasmoa arduradunen berbetan, "txapelketak robotikaren eta teknologia berrien inguruko topaketa izan nahi du, doakoa izango da eta Euskadi osoko gazteentzat zabalik egongo da. Helburu nagusia eskola adineko haur eta gazteak, 8 eta 16 urte bitartekoak motibatzea da, robotika eta programazio arloan lehen urratsak eman ditzaten eta, horrekin batera, talde-lana eta arazoaren ebazpena lantzea da asmoa. Udako tailerretan parte hartzeraz animatzen diren gazteek txapelketan parte hartu eta eurek egindako lanak erakusteko aukera izango dute".

Ekainaren 8an, Mutrikuko Arbe Hotelak Debabarreneko Turismo Plan Estrategiko berriaren aurkezpena hartu zuen. Ekitaldian izan ziren eskualdeko alkate eta ordezkari politikoak –Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Sorluze–, Debabarreneko eragile turistikoak eta erakunde publiko eta pribatuetako ordezkariak. Ekitaldiaren helburua Debegesa garapen agentziaren ekimenez landu den Debabarreneko 2020ra bitarteko Turismo Plan Estrategikoa aurkeztea izan zen. Aitziber Cortazar Debegesako Turismo eta Garapen Jasangarria saileko arduradunarekin egon gara eskualdeko turismoari begirada emateko.



Aitziber Cortazar DEBEGESAko Turismo eta Garapen Jasangarria saileko arduraduna.

AITZIBER CORTAZAR: “Gure eskualdean turismo-eskaintza propioa eta kalitatezkoa daukagu”

- Debegesak bultzatzen duen hirugarren Turismo Plana da hau. Zelako berritasunak ditu?

Aurrekoarekin alderatuz gero nolabaiteko eboluzioa dago, bai edukietan bai garapen mailan. Desberdintasun handiena orain lehen ez geneukan “produktu izar”

bat daukagula da: Euskal Kostaldeko Geoparkea. Geoparkea aurreko planaren ondorioz sortu zen eta orain helmuga turistikoko moduan oso posizionamendu ona ematen digun leloa eta produktua daukagu. Eta horrek baldintzatzen du orain nola ikusten dugun eskualdeko plangintza.

- Beraz, Geoparkea salto kualitatiboa izan da eskualdeko turismoarentzat.

Geoparkea ez bagenu izango produktu eleanitzeko helmuga turistikoa izango ginateke. Gastonomiari, kulturari, naturari eta industria kulturalari lotutako produktuak izango genituzte, denetik apurtxo bat, baina ez zen egongo erakarpen maila aldetik destakutzen den ezer, eta orain badaukagu.

- Zeintzuk dira Planaren helburuak?

Azken urteotan turismoaren arloan eman diren aldaketa nabarmenak kontuan izanda, turismo-helmuga lehiakor eta iraunkor bat lortzeko bidean pauso bat aurrera egitea da helburua. Diskurtso propioak garatuz, Deba eta Mutriku inguruak indartzea planteatzen dugu: Mutrikuko diskurtsoa itsasoaren kulturari lotuta joango litzateke, eta Debari dagokionez bere posizionamenduan lanean gabiltza eta gizakia eta Karstaren arteko loturaren aldeko diskurtso bat eratu nahi dugu. Bestalde, barnealdeari begiratzen badiogu, orain arte badaude produktuak, baina agian apurtxo bat solte daude, eta orain produktu horien arteko lotura bat egiten eta indartzen ahalegindu behar gara. Plan estrategikoaren helburuetako bat turismoa desestacionalizatzea da: guk urte



Azken urteotan %40 hazi da eskualdera etortzen diren bisitarien kopurua. Nabarmena da atzerriarren hazkundea: 2005. eta 2016. urte bitartean, nazioarteko bisitaien kopurua %80 igo da.

guztian daukagu turismoa hemen. Gure alojamentuak turistei esker bizi dira, baina baita urte guztian zehar dagoen negozio-turismoari esker ere. Bilerak, fabrika baten bisita bat edo formakuntza kurtso bat daukatelako gu bisitatzera etortzen direnak badaude.

- Zeintzuk lirateke plan turistikoaren gakoak?

Alde batetik lankidetzak publiko-privatuak. Bestalde, kostaldeko herriak –Deba eta Mutriku– indartzea eta bisitariak barnealdera erakartzeko lanketa bat egitea. Zaila da, kostak berez badauka bere xarma. Baina kontua da nola erakarri barnealdera kostaldera etortzen diren bisitariak. Hori landu behar dugu. Geoparkeaz gain kostan Donejakue bidea daukagu. Deba da geldialdi bat eta hor kriston mugimendua dago. Debako udalak apostu handia egin zuen, aterpetxe bat zabaldu zen eta arrakasta handia edukitzen ari da. Aterpetxeak beteta daukate.

- Eta zer egin daiteke barnealdean turismoa bultzatzeko?

Oraindik gauzak zehaztea falta zaigu, baina argi dago kultura industrialari lotutako ondarea dagoela. Asko dago kontatzeko: eskualde hau oso ekintzailea izan da. Hori lotuta dauzkagun bi museoak (Eibarren Armagintza Museoa eta Elgoibarren Makina Erramintarena) erakusten dute zer izan garen eta zergatik iritsi garen honaino. Hori lan ildo bat daukagu. Negozio-turismoa ere hor daukagu. Lanagatik etortzen direnak produktu horiek kontsumitu ditzaten nahi dugu. Bestalde, natura turismoarekin lotuta trikuharrien ibilbidea dago, Soraluze, Elgoibar eta Bergararen artean elkarlanean. Eibarren kirolak ere bere kutsua dauka eta ekitaldi kultural asko daukagu. *Shoppinga* ere badago: Eibarrek komertzio aldetik oso azpiegitura potentea dauka. Hori berez bakarrik ez da erreklamo turistiko bat, baina daukagun eskaintza kultural eta industrialari lotuta, uste dugu zerbait egin daitekeela. Eibar Foball Taldea, Astelena pilotalekua, Txirrindularitzari loturako ekitaldiak... guztia uztartu daiteke eta diskurtso propio bat eraiki.

- "Dena eskura" goiburua daraman gida kaleratu duzue aurten. Zer jasotzen da bertan?

Ahalegin handia egiten ari gara aurten promozio bidea eta gauzak kontatzeko moduak birplanteatzeko. Gure mezua da "dena eskura", Euskal Herriko muinean gaudelako, leku guztietatik gertu, eta horretaz gain badaukagulako eskaintza propioa. Erdian gaudela aprobetxatu behar



2020. urtera begira, Debabarreneko turismo-eskaintzaren kalitatea eta aniztasuna sendotzeko apostua egiten duen Turismo Plan Estrategiko berriaren aurkezpen-ekitaldia.

dugu jendea gurenagana etortzeko, gurean zerbait egiteko eta ekonomian mugimendu bat emateko. Lelo horrekin argitaratu dugun folletoan 10 arrazoi identifikatu ditugu gurengana etortzeko: "Euskal kostaldeko Geoparkea" (urtean zehar bisita gidatuak daude, itsasontziz edo oinez, kostaldean zein barruko bailaretan), "Gure hondartzak" (herrigunean eta kaskotik kanpo dauden hondartzak erakargarriak ditugu, "Gastronomia" (Agenda bat egiten saiatu gara: Berdel eguna, Sagardo eguna, pintxo lehiaketak, Gaztañerre, Tripontziak, Mendaroko txokolata...) "Natura" (ibilbide desberdinak azaltzen saiatu gara), "Ondare historikoa" (Mutrikuko monumento multzoa, Debako kobazuloak) "Ondare industrial" (Eibar eta Elgoibarko museoak), "Negozio turismoa edo MICE-turismoa" (Ermuko Izarra Centre lehen mailako azpiegitura da edozien negozio-ekitaldi hartzeko). "Artea" eta "Kultura" (arte eszenikoen zentroak, euskal jaiak, erromeriak, herri kirolak...). Leku guztiek ez daukate Eibarren eta Ermuan dagoen eskaintza kul-

"Uste dut ez ditugula kontatzen ditugun gauza asko, eta hau euskaldunei sarritan gertatzen zaigun zerbait da".

turala eta hau balioan jarri beharra dago. Uste dut ez ditugula kontatzen ditugun gauza asko, eta hau euskaldunei sarritan gertatzen zaigun zerbait da. Hemen lanketa bat egin beharra dago. Guregana etortzeko beste arrazoi bat "Kirola" da. Gida egiten hasi ginenean harrিতuta gelditu ginen zenbat gauza egiten diren ikustera-koan, bai kirolari eta bai kulturari lotura. Kirola egiteko eta ikusteko aukera asko daukagu eta hau beste arrazoi bat da.

- Bestalde, gida horretan eskualdeko herri bakoitzari bere tartetxoak ematen saiatu zarete. Zer azpimarratu duzue herri bakoitzean?

Eibarri dagokionez "Hiri armagina, artez, industriaz eta kirolez armatua" mezua erabili dugu. Elgoibarren "Makina eta erreminta, eskutik helduta". Ermuan "MICE gunea. Egin negozioak zapore gozoak dastatuz". Deban "Hondartzak, natura eta ekin!". Mallabian "Euskal landaren muina". Mendaron "Txokolate gozo-gozoa". Mutriku "Benetako itsas-zaporea". Eta Soraluzen "Dolmenen aztarnak".

- Parte hartze handia izan du planak?

Eragile desberdinen arteko elkarlanaren emaitza izan da. 8 udalerrietako ordezkari politikoak, eskualdeko eragile pribatu eta publikoak, Gipuzkoako Aldundia eta Eusko Jaurlaritza... Bilerak egin dira, inkestak, elkarrizketa pertsonalak... prozesuan parte hartzeko modu desberdinak egon dira. Adostasuneko plangintza bat izatea nahi genuen, eta hortik abiatuta gauzak egiten hastea.

Espainiako hiru txapelketetan izango dira Urbateko igerilariak

Aurreko asteburuan Urbateko alebinek Tolosan lehiatu zuten eta infantilak Galdakaoan. Eibarko taldeko zazpi igerilari izan ziren bi txapelketa horietan, guztiak euren denborak hobetuz eta batzuk baita dominak eskuratuz ere. Euretako bik, Paula Gabilondok eta Jon Osak, Espainiako txapelketan parte hartzeko gutxieneko marka erdietsi zuten. Horrela,

denboraldia amaitzeko, Urbatek ordezkariak izango ditu Udako Espainiako txapelketetako hiru mailatan: alebinak, infantilak eta absolutoak.

Bestalde, aurreko asteburuan Urbatek lau ordezkari izan zituen Irungo Azken Portu igerilekuan jokaturako Gipuzkoako alebinen txapelketan. Lau jardunaldiko formatuan jokaturako lehiaketan, igerilari gehienek



estilo ezberdinetako probak aurkeratu zituzten, denboraldian lortutako gutxieneko markei jarraituz, eta eibartarrek erakutsi zuten bide onetik doazela. Miren Galdosek 400 metro libre-

ko proba irabazi zuen eta bigarren izan zen 200ekoan, Paula Gabilondo bigarren izan zen bular eta estilo modalitateetako 100 metroan eta hirugarren bularreko 200ekoan.



Jose Mari Arrazola, Jose Ramon eta Enrike bi semeekin Treparriscosen.

Jose Mari Arrazolak beteranoenaren saria jaso zuen Treparriscos proban

Quebrantahuesosekin, txirrindularitzako estatuko fondoko lasterketa entzutetsuenarekin, jokatzeko den fondo erdiko Treparriscosen 14. edizioan hartu zuen parte, aurreko urteetan bezala, Jose Mari Arrazola eibartarrak. Sabiñanigotik irten zuten 2.114 parte-hartzaileen artean hilabete honetan 80 urte beteko dituen txirrindularia izan zen adinean nagusia eta beste sari bat ekarri zuen etxera. Quebrantahuesos ospetsu horrek 10.200 parte-hartzaile izan zituen guztira.



Hiru domina Ttatt-eko ordezkarietzat WuShun

Sulei Samadik eta Sergio Osuak urrezko domina irabazi zuten eta Andoni Morgadek zilarrezkoa, zazpi herrialdeko ordezkariak batu zituen Madril-en jokaturako nazioarteko WuShu modalitateko torneoan. Eibarko Ttatt gimnasioko ordezkariak estatuko lehen mailan jarraitzen dute.

Hiru gerriko berri Kalamuako karatekentang

60 karateka aurkeztu ziren Donostian jokaturako 1. Danetik 5.-era arteko gerriko beltzen azterketara eta Kalamuatik joandako hirurak gerriko berriei itzuli ziren Eibarrera: Ane Rojok 1. Dana eskuratu zuen eta Hegoi Estebanek eta Mikel Txarkategik 2. Dana. Aurretik Manu Agirrek teknika eta katak egiteko ikastaroa eskaini zuen. Santanderreko IX. Bansander Torneora joandako ordezkariak, bestalde, domina barik bueltatu ziren. Lehiaketa horiekin amaitu dute denboraldia Kalamuakoek.



Maila igotzeko asmoa du Eibar FT-ko nesken lehen taldeak

Gero eta helburu handiagoak dituzte Eibar FT-ko arduradunek emakumezkoen arloko taldeekin. Hori dela eta, 2. Mailan jokatzeko duen talde nagusiak "1. Mailara igotzeko helburua" izango du hemendik aurrera. Azken denboraldian 6. postuan amaitu zuen Felix Recioren aginduetara jokatu zuen taldeak, eta orain Xuban Peña izango da entrenatzaile eta Ion Zabaleta nesken taldeetako koordinatzaile orokorra. Lehen taldeak abuztuaren 8an hasiko du aurrendenboraldia.

Uztailaren 12an hasiko duen aurrendenboraldian Eibar FT-k 10 partidu jokatuko ditu

Oporraldi sasoia amaituta, Eibar FT-ren lehen taldeko jokalariek datorren eguaztenean, hilaren 12an, hasiko dituzte entrenamenduak Jose Luis Mendilibarren aginduetara. Hurrengo asteko eguenean, hilaren 20an, Kössen Austriako herrian elkarretaratuko da taldea uztaila amaitu arte. Liga hasi aurretik Eibarrek hainbat lagunarteko jokatuko ditu, 10 guztira, uztailaren 17an, Real Unionen aurka Zarautzen

(19:30) jokatuko duenetik hasita; handik bi egunera, hilaren 19an, Barakaldo izango du aurkari Atxabalpen (19:00). Austriako stagean lau partidu jokatuko dituzte: 22an Ingalaterrako Watford-en aurka (16:00), 23an Ingalaterrako Leeds United-en kontra (17:00), 29an Turkiako Kasinpasa aurkari dutela (17:00), eta 30ean Alemaniako Schalke 04 (17:30). Behin hona etorrita beste lau neurketa jokatuko dituzte liga



Eibarrek lau partidu jokatuko ditu Austriako stagean.

hasi aurretik: abuztuaren 4an (19:00), 11n Osasunaren kontra Xixongo Sporting-en aurka (19:00) eta El Sadarren (19:00) eta 12an Zaragozari aurre eginez La Romaredan (21:00).

Amurrioko mendi-lasterketan eibartarrak nagusi

Laukotea joan zen guretik Arabako herri horretako mendi-lasterketa egitera eta baita ondo baino hobeto moldatu ere laurak. Jose Mari Bernedo lehenengoa izan zen 22 kilometroko proban (1h38'35"), Igor Fernandez hirugarren (1h47'42") eta Iñigo Unanue laugarren (1h47'43") -azken hau, gainera, beterrano onena izan zen beste behin-. Kristina Lopezek 12 kilometroko antxixiketaldian hartu zuen parte, hirugarren amaitzeko (1h16'02").



Deporreko atletek maila onean jardun zuten Espainiako txapelketetan

Torrent herrian jokatutako Espainiako promesa txapelketan Odei Jainagak txapela jantzi zuen eta, horrez gain, 76,34 metroko markarekin baita txapelketako marka ezarri ere. Murtzian, bestalde, estatuko kadete mailako txapelak izan ziren jokoan eta hor Klub Deportiboko hiru atletek hartu zuten parte, guztiek ere euren markak hobetuz. Garoa Magunazelaia 7. izan zen jabalinarekin, Carlitou Mendy 10. jauzi hirukoitzean eta jabalinan, eta Eneko Osoro 13. 5.000 metro martxako proban.

DENBORALDI AMAIERAKO
OUTLET
EIBARSTORE.COM & ASKASIBAR
UZTAILAK 15 ARTE

70 xakelarik hartu zuten parte Eibarko Hiria 33. xake txapelketan

San Juan jaien amaieran urtero jokatzeko den Jose Mari Kruzetaren omenezko partida azkarren xake txapelketan Euskal Herri guztitik etorritako 14 taldek hartu zuten parte, lau bat ordutan xakea eta elkartasuna lotu zituen erakustaldian. Errenteriako Fomento Cultural eta Donostiako Easo izan ziren onenak, garaipena lehenengokoentzat izan bazen ere (puntu erdiko aldearekin). Eibarko Klub Deportiboak bi talde aurkeztu zituen: Jon Ara-

na, David Perez, Jose Ricardo Gomez, Jose Antonio Garrido eta Emilio Jose Freirek osatutako A taldeak 7. postuan amaitu zuen eta Adrian Martinek eta Lander Aja eta Xabier eta Aitor Beorlegik osatutako B taldea 13. postuan sailkatu zen. Lau mahaietako onenak Oscar Diez (Izeaga), Iñigo Galarza (Fomento Cultural), Juan Carlos Lakunza (Easo) eta Luis Olaizola (Gros Xake Taldea) izan ziren; Diezek eta Galarzak partida guztiak irabazi



Jardunaldiko irabazleen taldea sari-banatzailleekin.

zituzten. Sari banaketan Patxi Lejardi zinegotziak eta Margarita Olañeta Jose Mari Kruzeta-

ren alargunak hartu zuten parte, guztiak afaria partekatuurretik Deporrek egoitza.



Eskubaloiko estatuko junior selekzioa Eibarren

Mutilen Espainiako junior selekzioak aste osoa eman du gure herrian entrenamenduak egiten eta gaur, 18:30ean Ipuruan hasiko den partiduan, Tunezeko selekzioari egingo dio aurre. Prestaketa horiek Argelian jokatu den Mundialera begira egin dituzte. Jordi Rivera bere sasoiari J.D. Arrateko entrenatzailea izan zena eta gaur egun selekzio absolutoa gidatzen duenaren ideia izan da gureratortzearena.

Bihurri aizkolaria Eskozia la Bravako ordezkaria izango da Highland Games-ean

Gure herriak parte hartuko du Eskozian oihartzun eta tradizio handia duen Highland Games jardunaldian. Uztailaren 15ean jokatu den ekitaldian Eskozia la Brava Eibar FT-ko peñak Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariaren jardunaldia antolatu du eta munduko hainbat marka dituen kirolariak armaginak ordezkatu



tuko ditu, bertan herrikirolatetako hainbat modalitateen erakustaldia egiteko. Bidaia iragartzeko egindako prentsaurrekoan Alberto Albistegi zinegotzia eta Amaia Gorostiza Eibar FT-ko presidentea izan ziren ekimenarekin bat egiten zutela adierazteko eta Koldo Ayuso peñaren ordezkariak "Eskozian dokumentala grabatzeko asmoa" azaldu zuen.

Eguraldi kaskarra izan zuten Bizkaiko Biraren 9. etapan

Aurreko zapatuan osatu zuten Deportiboko mendizaleek Bizkaiko Biraren opor aurreko azken etapa, Turtzios eta Karrantza batu zuena, tartean 721 metroko Ranero mendia igota. Egural-

diak ez ziren askorik lagundu, "euria, haizea eta lainoa" gain-gainean izan zituelako 43 lagunek osatzen zuten taldeak ibilbide guztian. Armañongo parke naturala zeharkatu zuten eta txangoa amaitu aurretik Pozalagua koba ondotik pasatu ziren. Bizkaiko Biraren 10. etapa, bestalde, irailaren 30ean egingo dute Karrantza eta Lanestosaren artean. Argazkian, bustitako erropak aldatu eta bazkaldu ondoren ateratako argazkia Karrantzan.

Aldaketa egutegian

Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordetik kaleratu duten oharrean diotenez, uztailaren 15erako Ortzaize eta Heletaren artean egin beharreko txangoa bi hilabete atzeratu da eta data berria irailaren 23ra aldatu dute. Beraz, mendi-irteera horretako 813 metroko Haltzamendi gainak oporretatik bueltara arte itxaron beharko du.



Periko Iriondo

Debabarrena areto-foballeko kluba pertsiana jaistera derrigortuta

28 urteko ibilbidea egin ondoren, azkenean heldu zaio Debabarrena areto-foballeko taldeari agur esateko ordua, eta horrekin batera bere talde



Jose Ramon Iriarte izan da klubaren bihotz eta arima.

guztiak lehiaketetatik atera eta kluba desegingo da. 1989an sortu zuten taldeak ibilbide loriatsua izan du aurreko urte guzti hauetan eta orain ere, Gipuzkoako maila handiena duen taldea izateaz gain, Euskal Herriko onenetakoa jarraitzen zuen izaten. Baina kantxetan erakutsi duen mailak ez du pareko ordainsaririk izan instituzioen aldetik eta orain dela gutxi amaitutako denboraldian jasotako erantzunak, hau da, Kirolgik taldea inolako laguntzarik gabe lagatzeak, "horretarako inolako abisurik jaso gabe", klubaren ardura-dunei ez die bestelako irteerarik laga. Azken denboraldian,




2. B mailan jokatu duen Concepto Egilerekin batera, bere partiduak Hezkuntza Esparruan jokatzen zituen kadete mailako taldea izan du Debabarrenak. Diru-laguntzetan jasotako tratu txarraren bidetik,

2010-11 denboraldian kantxetan lortutako 2. mailarako igotzea ezin izan zuen gauzatu taldeak eta 2. B mailan jarraitu izan du urte guztietan, beti ere goiko postuen arteko borrokan sartuta. Azken unera arte!

Pirinioetarako lau eguneko ibilaldia antolatu dute Benasqueko haranera

Eibarko Deporrek mendialdeak eta Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkarteak lau eguneko irteera prestatu dute, uztailearen 22tik 25era arte egingo dutena. Txango hori mendian ibiltzen ohituta daudenentzat da: "Egun batean Anetoren gorenera, 3.404 metrora, igotzeko bederatzi orduko txangoa egingo dugu". Irteera horretako txangoak honakoak dira: hilaren 22an, zapatuan, Luchonetik Mair de Diu dera Artigako ermitara, tartean Salva-



Pirinioetako Mulleres.

guarda (2.738 m.) eginez. "Bost orduko txangoa izango da, 16 kilometrokoa, eta 1.500 metroko desnibelarekin". Conangles aterpetxean lo egin ondoren 23an, domekan, Vielhako tunelaren hegoaldeko ahotik Benasqueko ospitaleraino, tartean Mulleres (3.010 m.) eginez. "Zortzi orduko txangoa 20 kilometro egingo ditugu eta 1.500 metroko desnibela gaindituko". Benasqueko Hotel Avenidan lo egin eta astelehenean, hilaren 24an, Arrantzaleen Aterpetik irten, Coronasetik pasatu eta Anetora igoko dute, berriro ere Benasqueko ospitalera iritsi aurretik. "Bederatzi orduko txangoa, 17 kilometro eta 1.500 metroko desnibela izango ditugu aurretik". Ainsako Mora de Nuei aterpetxean egingo dute lo azken egun horretan eta martitzenean, uztailearen 25ean, San Vitorian monastegitik Peña Montañesara (2.295 m.) igoko dute eta, La Colladatik pasatuta, San Vitorianera bueltatuko dira. "Egun horretako txangoa sei ordukoa izango da, 15 kilometro bidean eta 1.200 metroko desnibelarekin", diote antolatzaileek. Ohikoa denez, izena Klub Deportiboko egoitzan eman daiteke, martitzen eta eguenetan (19:30-20:30), 943 201904 telefono zenbakian edo mendia@deporeibar.com emailean. Hori bai, beharrezkoa da federatuta egotea eta kranpoiak eta pioleta eramatea. Txangoetan eguneko motxila bakarrik eramaten da, "autobusak lo egiteko lekura eramango dituelako beste traste guztiak".

CAPI

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547



Powered by **BODY**


GORPUTZ TRATAMENDUAK



LEHEN



ORAIN



lehen

BESOAK

orain

PROGRAMA BERRIAK
Tratamendu drainatzaile eta birmodelatzailearen
4 salorako bonoak

Masajeak

Ipini zaitetz sasoi onean ...

Hileroko bonoak 80€

... astero bakarrik 20 minutu eginez

Pertsonalizatua

Proiektzioak, musika eta ipuinak udako gauak girotzeko

Urteroko martxan, udako gauetan izaten den giro atsegina-
ren aitzakiarekin, Ikusentzunezkoen Astea antolatu du aurten
ere Arrate Kultur Elkarteak. Martitzenean abiatu zen egitaraua,
Beñat Goitia gasteiztarraren "Isturitzetik Etiopian barrena" izenburu-
ko lanarekin. Musika, literatura eta zinea uztartzen dituen ikuskizu-
nak interes handia piztu zuen, San Andres elizako klaustroan ipini-
tako aulki guztiak bete ziren eta. Eguaztenean, berriz, aurtengo egi-
tarauko berritasun nagusia ailegatu zen: egun bitan saio bikoitza pro-
gramatu dute antolatzaileek. Gainera, orain arte emanaldiak gauetz
izan dira, baina eguaztenean arratsaldean izan zen lehen saioa eta,
horri esker, oraingoan umeek ere izan dute egitarauarekin gozatzeko
aukera eta ondo aprobetxatu dute, gainera: Nerea Ariznabarretak
Mariano Hurtadorekin batera eskaini zuen ipuin musikatuak
haur eta guraso mordoa bildu zituen klaustroan eta, oraindik ilundu
barik zegoenez, elizaren alde horren edertasunak bat baino
gehiago aho zabalik laga zuen.



Gauean, berriz, "Irrintziaren oihartzunak", Iratxe Fresnedaren do-
kumentala eman zuten. Euskal Herriko Unibertsitatean Ikus-entzune-
neko Komunikazioa saileko irakasle honentzat zuzendari eta gidoi-
lari gisa lehen filma den honetan, Europako zinemagintzaren aitzin-
dari ausart horietako bat izen zen Mirentxu Loyarte (Iruñea, 1938) da
ardatza. Lana iaz estreinatu zuten Donostiako Zinemaldian, Zinemi-
ra atalean.

Eta aurtengo egitaraua biribiltzeko, atzorako berriz ere saio bikoit-
za antolatu zuten: hasteko, Garazi Pascual Esnaola artistak osatu
duen Garazi & Cia konpainiak "Pausoz pauso", zirkua, dantza
eta kultura biltzen dituen ikuskizuna aurkeztu zuen eta, ondoren
"Eibarko bonbardaketaren testigantzak" bideo-emanaldia eskai-
ni zuten. 1937ko apirilko bonbardaketak gogoan, iaz Topale-
kuan erakusketa eta hitzaldia egin ziren eta, horiek oinarritzat
hartuta, Sergio Dosantos Barrutiak atzo eman zuen ikus-entzune-
zkoa osatu du.



NEREA ARIZNABARRETA
(antzezlea)

"Ezberdintasunak ez du zertan txarra izan"

Bolada luzean ez dugu izan Nerea Ariznabarreta herrian beharrea ikusteko
aukerarik, Arrate Kultur Elkarteak aste honetan bueltan ekarri digun arte.
Eguazten arratsaldean San Andres elizako klaustroa umorez, magia eta
musikaz bete zuen eibartarrak, Ikusentzunezko Astearen egitarauaren
barruan "Ezberdin bezain eder" izenburuko ipuin sortarekin. Ikuskizun
honetan bidelagun duen Mariano Hurtadok, instrumentu ezberdinak erabilia,
ipuin kontakizuna zuzeneko musikarekin primeran osatzen lagundu zion.

– *Nola sortu zen "Ezberdin bezain eder" lana?*

Honen aurretik ere antzerkia eta musika batzen dituen lanen batean jardun izan dut, lagunetako asko musikariak dira eta, egia esan, berriz ere horrelako zerbait egiteko gogoia banuen. Horrekin batera, ikuskizunean ez ezik bizitzan ere bikotea gara Mariano eta biok eta, beraz, lanen batean elkarrekin aritzea ondo egon zitekeela pentsatzen genuen. Beraz, bi ideia horiek bultzatuta edo, ikuskizunerako ipuin hauek idaztea erabaki nuen. Kontatzen ditudan istorioetan errepikatzen den gaia "ezberdintasuna" da, modu batean edo bestean, ezarrita dagoen bidetik irtetzeak dakarren ezaggarri modura planteatuta: txirula izan nahi zuten kontrabaxua, milaka koloretako eguzki izpi arraxoa, ezusteko oparia jaso zuen urtxintxa... horiek dira ipuinetako protagonistak. Ipuinak idazten hasi

nintzenean, nire asmoa ezberdin izateak ez duela zertan txarra izan azaltzea zen. Azkenaldian bizi izan naizen tokietan oso jende anitza izan dut inguruan, kultura zein jatorri ezberdina zuten lagunak egin ditut eta horien inguruko ezberdintasunaz idazteko asmoa nuen, baina ipuinak idazten joan ahala artista izateak eragiten didan nire ezberdintasunaz ere ari nintzela konturatu nintzen.

– *Zertan ibili zara ba azkenaldi honetan?*

Gauza asko egin ditut: clown ikasketak, antzerkia... eta urte bi eman ditut antzerkia eta interpretazioa ikasten London International School of Performing Arts (LISPA) ikastetxean. Berez Londren hasi genuen lehen kurtsoa, baina ikasturtea hasita zegoela eskola tokiz aldatu zuten eta Berlinen jarraitu genuen ikasten, bigarren kurtsoa ere han amaitu genuen. Beraz, luzaroan egon naiz Ei-

bartik kanpora, bueltatu nintzela urtebete ez da igaro.

– *Eta zer darabilzu esku artean?*

Gauza asko egin nahi ditut eta jende berriarekin elkarlanean jarduteko gogoia daukat. Lehen nire taldea zen Zurrumuru desagertu egin da, banandu egin ginen eta beste kideak hemendik kanpora eraman du taldea. Horregatik, beste batzuekin batera aritzeko oso prest nago, Ermuko Lekim Animazioak taldekoekin gauza batzuk egin ditut eta oso gustora ibili naiz. Eibartik Lekeitiora joango naiz, egunotan martxan dagoen Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdian aspaldiko laguna dudana Virginia Galvánekin batera "Martirio y Adela" izenburuko eskaintzera... Antzerkitik bizimodu ateratzea ez da inoiz erreza izan, baina formatu eta eskakizun berrietara moldatzen jakinez gero aurrera egin daitekeela pentsatzen dut.



Banatu dituzte aurtengo argazki-rallyko sariak

San Juan jaien ostean, ekaineko azken egunetan banatu zituzten Argazkilaritza Maiatzean egitarauaren barruan egin zen Argazki Rallyko sariak: zuri beltzean, lehen saria Roberto Zamanillok (Photobat) eskuratu du, bigarrena, Bakarne Elejaldek (EKD) eta hirugarrena Joseba Arginzonizek (Ilargi). Herri mailako saria, berriz, Fernando Retolazak (EKD) eraman du. Eta digital-koloretan atalean, berriz, lehen saria Jose Luis Rodriguezek (Denbora) jaso du, bigarrena Imanol Manterolak (Distira) eta hirugarrena Mikel Urionaguenak (EKD). Herriko onenari saria Zigor Astigarragak irabazi du eta gazteen mailan Eneko Zengotita nagusitu da. Irabazleen eta rallyan parte hartu zuten beste hainbatetan lanak uztailearen amaiera arte ikusteko aukera izango da, Portalea jatetxean martxan dagoen erakusketan. Eta Ambigú tabernan, berriz, Fernando Alonsoren argazkiak ipini dituzte ikusgai Deporrek argazkilariek.

“Artestura Feministak” antolatu du Emakumeen Etxeen Sareak

Emakumeen Etxeen Sareak “Artestura Feministak” lehiaketa antolatu du, “emakumeen sormena eta produkzio artistikoa bultzatzeko eta emakume artistak zein eurek sortutako lanak ezagutzera emateko asmoz”. Sare horretako kidea den Andretxea-tik aurreratu dutenez, lehiaketa egin ondoren, herri batetik bestera, sareko emakumeen etxe guztietatik pasatuko den erakusketa ibiltaria antolatuko dute. 18 urtetik gorako emakumeek izango dute parte hartze

ko aukera eta lanak Pegoran aurkezteko epea irailaren 29an itxiko da. Antolatzaileek 400 euroko 8 sari eta 200 euroko 8 aipamen berezi emango dituzte. Lehiaketari buruzko informazio guztia Andretxearen web orrian dago eskuragarri eta, edozein zalantza izanez gero, Andretxeara joan daiteke (Zezenbide, 9 behea) edo, bestela, 943 70 08 28 telefono zenbakira deitu edo andretxea@gmail.com helbidera idatzi.



I. Ojanguren lehiaketaren edizio berria martxan

Udalak, Klub Deportiboaren laguntzaz, 2017ko Indalezio Ojanguren XXX. Argazki Lehiaketarako deia egin du. Aurreko edizioetan bezala, lehiaketa 2017 Argizaiola Lehiaketaren sailkapenerako baliagarria izango da eta edozeinek izango du parte hartze



Jende Xumearen errifa

Jende Xumea PROYDE-PROEGA GKE-ren barruan dagoen gazte kooperanteen taldeak saldutako errifen zozketan hauek izan dira zenbaki sarituak: 446 [erreserba: 320] urdaiazpikoa, gazta eta ardo botila; 244 [erreserba: 16] kafetera, kapsula paketea eta gozagarri paketea; 373 [erreserba: 257] txirrindulari maillota, txapela eta bi botilatxo; 207 [erreserba: 267] Euskal selekzioaren jertsea

eta motxila; 510 [erreserba: 87] Athletic-eko kamiseta; eta 103 [erreserba: 397] Errealeko kamiseta. Saria eskatzeko epea gaur amaituko da (sari batzuk banatu dituzte). Bestela, erreserbako zenbakiari emango diote. Hauetako zenbaki bat izanez gero, mezua bidali Jende Xumearen Facebookera edo deitu 688 63 71 04 telefonora (Aitor).



Goruntz-en saria 1.304 zenbakiarentzat

Goruntz abesbatzak saldutako errifetan, saritutako zenbakia 1.304 izan da. Zenbaki sariduna ekainaren 30eko ONCE-ren zozketan saria eraman zuenaren azken lau zenbakiekin bat dator. Irabazleak asteburupasa joateko irteera jasoko du.

El Corte Inglesaren terrazarako egitaraua

Aurreko astean aurkeztu zuten El Corte Inglesaren terrazarako antolatu duten egitaraua: gaur eta uztailearen 13an eta 20an, puzgarriak eta tailerrak egongo dira; barixakuetan, berriz, umek jolas erraldoiez (minigolfa, 4ko ilara, slackline...) gozatu ahal izango dute. Jarduera guztiak 17:30ean hasiko dira; eta, horrez gain, Juanma Cano eta Maite Lorenzok “Novios” mikroantzerkia aurkeztuko dute bihar, 19:00etan. Hortik kanpora, astelehenetik barixakura 16:30etik 21:30era zabalduko dute terraza, eta zapatuetan, berriz, 17:00etatik 22:00etara.





IRATXE GIMENEZ

Ni izan naiz

Gizakiak egiten dituen sorkuntzen aurrean duen erreakzioa, bakoitzak duen ingurugiro eta izaeraren arabera dator neurri handian. Bansky grafiteroa artista iheskorra da. Bere manager ohiak haren benetako izena munduan 15 lagunek bakarrik zekitelako zioen. Edozein kaletako horma hondatu marrazki batekin balioan jartzeko gai den bakarrenetarikoa da. Orain dela egun batzuk bere berri izan dugu, Dj batek haren izena nahi gabe esan duelako irradian: Robert. Massive Attack taldearen Robert del Naja omen da. Fanny-ri musika egitea gustatzen zitzaion. Eta ona zen. Oso ona. Aita bankaria zuen eta heziketa jasoa eman zien bere semeei. Batez ere gizonezkoei. Fanny konpositore itzela izanda, berak egindako lanak argitaratu nahi zituen, baina aita Abrahamek bere anaiaren izenean sinatzeko agindu zion: F. Mendelssohn. Historiak dio garaikidea izan zen Ingalaterrako Victoria erreginari gehiago gustatzen zitzaizkiola Fannyren abestiak anai Félixenak baino. Alfredo Galán Sotillok hiltzea erraza zela erakutsi nahi zion munduari. Eta harro sentitzen zen bizitza kentzeko zuen erraztasunarengatik. Bere hilketak sinatzen zituen. Karta bat botatzen zuen gorpuen gainean: hiru kopakoa, as bat... 2003an Puertollanoko komisaldegian bere burua entregatu zuen arte. Ni izan naiz eta harro nago. Prentsara salto egiten duten askoren izenak ego-z puztuta daudela pentsatu dezakegu, Alfredo Galánen kasuan bezala. Baina kulturaren kasuan, autoreak mimatu behar ditugula pentsatzen dut. Egileak zaintzea ideia berriak bermatzea da. Musika ezberdinak sortzea, kanta berriekin oraindik hunkitzen garelako konturatzea (*Despacitoren* ez zait gertatzen, zorionez) gauza handia da... horregatik egiten zait gero eta eramangaitzagoa SGAE-ren ustelkeri kasu berri bat agertzen den bakoitzean eta autoretzaren gurpilean beste makil bat sartzen dutenean. *Ramoncín, nos tienes fritos!*

Napoka Iriak agurra gaur Coliseoan

Ez da ibilbide motza izan: 12 urte dira Napoka Iria sortu zela. Eta gaur esango digu agur Miren Narbaizak eta Ander Mujikak osatutako bikoteak, Coliseoan hainbat lagun ez inguratuta eskainiko digun kontzertuan. 20:30ean dugu hitzordua, bi urteko geldialdiaren ostean zaleen galderak behin betiko isilarazteko ere balioko duena. 2005ean bildu ziren elgoibartarra eta eibartarra, Legarreko entsegu lokaletan. Baita "Lo ez" izena hartuko zuen lau laguneko taldea sortu ere. Pare bat kontzertu besterik ez zuten eman. Beste lagun biek musika elektronikoaren bidea hartu zuten eta Napoka Iriak Legarren grabatu zuen sei kantu zituen lehen maketa, "Kea" izeneko abestia tartean. Ahotsa eta gitarrak lagun, bluesaren, indie-folkaren, slowcore-aren eta rockaren eraginak dituzten melodiak eta giro tentsiodunak garatu izan dituzte hamarkadatik gorako ibilbide horretan. Maketa bat eta bi disko grabatu ditu bikoteak



eta 2013an kaleratutako "Arnasten ikasteko berriz" lan biribilena moduan hartu zuten musika kritikariek. Bi kideek beste hainbat proiektutan hartu zuten parte, tartean Tumatzak ETB-ko saiorako egindago hainbat kantaren bertsiokak. Azken aldian bakoitza bere aldetik ibili izan da: Miren Narbaizak Drumkopters eta Perlak taldeekin jotzen eta Joseba B. Lenoir Gang-en ere bai, eta Ander Mujika Anarirekin jotzen eta Javier Muguruzaren disko berria prestatzen. Narbaizak, dena dela, Mice-ren proiektuan jarri nahi ditu indar guztiak, udazkenerako diskoa prestatzeko helburuari emana: "*Lehenengo aldia izango da ni bakarrik, nire buruarekin eta nire buruaren kontra, ariko naizena*".

Harixa Emoten euskarazko irakurle talderako izen-ematea irailean

Oporren ostean, datorren ikasturtean berriz martxan ipiniko dute Harixa Emoten euskarazko irakurle taldea udal liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean eta izen-ematea irailean 1etik 7ra egin behar harko da, liburutegian (zuzenean hara joanda, telefonoz deituta edo e-maila idatzita). Orain arteko martxari jarraituta, saioak hilean behin egingo dira, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara Portalean eta liburua mamia ateratzeko Antxon Narbaizaren laguntza izango du taldeak. Lehen saioa urriaren 3an izango da eta egun horretan Miren Gorrotxategiren "33 ezkil" liburua (argazkian) aztertuko dute irakurleek, idazlearekin batera.



Bilbon agurtu zuten ikasturtea Ongi Etorri Berbetan taldekoek


Bilbora irteera egin zuten aurreko zapatuan Ongi Etorri Berbetan mintzapraktika egitasmo kideek, han egin zen "Munduko arrozak" izeneko jaialdira joanda ikasturteari agur esateko. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik garatzen den egitasmo arduradunaren berbetan, "goizean goizetik giro ederraz gozatzeko aukera aparta izan genuen: kontzertuak, dantzak, tailerrak... Eguerdian, berriz, kalejira egin zen eta Eibartik joandako talde ederrak horretan parte hartu zuen. Ondoren denok elkarrekin bazkaldu genuen eta norberak etxetik eramandako janari desberdinak dastatzeko eta gozatzeko aukera izan genuen. Zoragarri ibili ginen!". Ikasturtean zehar Ongi Etorri Berbetaneko taldeak martxa ederra hartu du eta, horrekin animatuta, maiatzean Txalan-Txalan bikote linguistikoak osatzeko ekimenarekin lanean hasi zen euskara elkarteak.





Berumuga musika zikloa BERGARAN

Bergarako udalak rocka, bluesa, jazz eta musika beltzaren kolorea duen Berumuga ziklo musikala antolatu du aruten ere eta, horren barruan, gaur 22:00etan Espoioia emanaldia eskainiko dute Shaun Booker & Tonky Blues Band taldekoek. Sarrera librea izango da. Zikloak uztaileko barixakuetan jarraituko du eta kontzertu guztiak aire librean eta doan izango dira.




SALLABENTEKO jaiak

Asteburuan ospatuko dira Ermuko Sallabente auzoko jaiak. Gaur 17:00etan zabalduko da Erdi Aroko Azoka eta 23:00etan playback lehiaketa izango da. Bihar goizean haurrentzako jolasak eta tailerrak egingo dira, 18:30ean sardina eta saiheski jana eta 23:00etan berbena, Aquarium orkestrarekin. Eta domekarako herriko atleten pertika jauzi eta jauzi hirukoitz erakustaldia (18:30) eta Versionarios taldearen kontzertua (21:30) antolatu dituzte, besteak beste

Ganadu azoka SAN ANDRES auzoan

Soraluzeko San Andres auzoko jaiak ospatuko dira gaur hasi eta hilaren 10era arte. Bihar 10.00etatik 14:00etara auzoko ganaduen eta baserri-planetarako erreminten erakusketa egingo dira eta, jaiak girotzen, Iñaki Murua eta Millan Telleria bertsolariek eta Unai eta Enaitz trikitilariak jardungo dute. Arratsaldean Asier eta Iñakiren omenezko pelota txapelketaren finala jokatu da; 21:30ean trikitilariak alaitutako herri afaria egingo da eta, ondoren, Bide Batez taldearen erromeria hasiko da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Juan M^a Fernandez. 68 urte. 2017-VI-12.
- Matea Alonso Saceda. 86 urte. 2017-VI-22.
- Placido Valladares Novoa. 82 urte. 2017-VI-22.
- Matilde Rivas Ezpeleta. 98 urte. 2017-VI-25.
- Nerea Gema Osa Etxeberria. 69 urte. 2017-VI-25.
- Pilar Gordo Imaña. 83 urte. 2017-VI-27.
- Pilar Derteano Sukia. 82 urte. 2017-VI-28.
- Rafael Herce Garraleta. 81 urte. 2017-VII-1.
- Pilar Sologastua Oregi. 85 urte. 2017-VII-2.
- Marivi Etxeberria Agirre. 79 urte. 2017-VII-3.
- Bernardo Chimeno Perez. 77 urte. 2017-VII-3.
- Jaione Lazpita Areitobiritxinaga. 83 urte. 2017-VII-5.

jaiotakoak

- Haizea Plaza Aldazabal. 2017-VI-18.
- Paul Bello Ortega. 2017-VI-18.
- Zakrea Ait Amer. 2017-VI-19.
- Gorka Gonzalez Cuetara. 2017-VI-19.
- Juan Etxaluze Bidarte. 2017-VI-23.
- Luka Lopez Amas. 2017-VI-24.
- Zakaria El Mabrouki. 2017-VI-26.
- Aitor Egiguren Kortazar. 2017-VI-27.
- Martin De la Torre Torrealдай. 2017-VI-28.
- Nahia Arriaga Ormaetxea. 2017-VI-30.

farmaziak

- Barixakua 7
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Zapatua 8
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 9
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 10
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- Martitzena 11
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 12
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 13
EGUNEZ **Eloriza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 14
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ BETI -2017 AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

1	2	3	7	9	5	4	8	6
9	7	6	8	4	3	5	1	2
5	4	8	1	6	2	9	7	3
6	3	2	4	5	1	8	9	7
7	5	1	9	8	6	2	3	4
4	8	9	3	2	7	1	6	5
3	6	4	2	1	9	7	5	8
8	9	5	6	7	4	3	2	1
2	1	7	5	3	8	6	4	9

	6	4	7					
1	5							8
	7			9			6	
4				6		3		
			5	9				
	2		1					4
	8			3			2	
9							5	1
				8	3	7		

Barixakua 7

PUZGARRIAK ETA TAILERRA

17:30/19:30. Puzgarriak eta umeendako tailerra (aurpegiak margotzen). El Corte Ingleseko terrazan, 3. pisuan (euria egingo balu, beste egun batean).

AMAÑAKO JAIK

18:15. Koadrilen jaitsiera, dorreetatik Amañako plazaraino, Irulitxa Ermuko txarangarekin.

19:00. Jai hasierako txupinazoa.

19:30. Kalejira, Irulitxa txarangarekin.

19:45. Umeendako joko-jaialdia, Gorritirekin.

20:30. Kalejira, Sakatu elektro-txarangarekin.

21:15. Entzierro txikia.

23:30. Kontzertua, Stai Zitto, Su Ta Gar eta Hamlet taldeekin.

KONTZERTUA

20:30. Napoka Iria-ren agur kontzertua. Sarrerak: 10 euro. Coliseoan.



Zapatua 8

EGUZKIAREN EGUNA

11:30-14:00. Eibarko Ingenieritza Tekniko Industrialeko Unibertsitate Eskolaren eskutik energia berriztagarrietan oinarritutako teknologia erakusketa eta tailerrak. Untzagan.

AMAÑAKO JAIK

12:00. Umeendako Aire Libreko pintura, plazan.

14:30. Herri-bazkaria.

16:30. Umeendako parkea: gaztelu puzgarriak, zezen mekanikoa eta espumaren jaia.

19:00. "Novios" mikro-antzerkia. El Corte Inglés-eko 3. solairuan (bestela, kafetegian).

19:00. Pintxo-potea.

19:00. Txokolate-jana, ume guztientzat.

19:30. Kallejoneada, "Estampas de Méjico" mariatxiarekin.

20:00. Kontzertua, "Estampas de Méjico" mariatxiarekin, plazan.

20:30. Kalejira, Pasaiako Electro-Txufla elektro-txarangarekin.

21:30. Entzierro txikia.

23:00/23:50. Berbena (1. zatia), "Akuarium" orkestrarekin.

23:15. Helduen danborradaren irteera, Ermuko Irulitxa txarangarekin.

00:00. Su artifizialak, Pirotecnia Zaragozanarekin.

00:15. Helduen danborradari omenaldia, 25. urteurrena dela-eta.

00:45. Berbenaren jarraipena, "Akuarium" orkestrarekin.

SAN KRISTOBALGO JAIK

16:00. Tute txapelketa auzoko tabernetan.

Domeka 9

AMAÑAKO JAIK

11:00. Meza, Goruntz abesbatzarekin, Amañako parrokian.

12:00. Salda eta txorizoa, txosnan.

12:30. Umeen danborrada, Ermuko Irulitxa txarangarekin. Dorreetatik Amañako plazaraino.

14:30. Ogitartekoak eta freskagarriak danborradan jardundako ume guztientzat.

18:00. Karaokea, Amaña es la Caña taldeak antolatuta, plazan.

19:00. Kale-antzerkia, Extremadurako "Las Sombras de Pandemonium" taldearekin, AFESD elkarteak antolatuta.

19:30. Txorizo-jana, txosnan.

19:50. Amaña es la Caña taldearen sari-banaketa ekitaldia.

20:15/23:00. DJ Angel-en emanaldia, 60. eta 70. hamarkadetako abestiekin.

Eguaztena 12

MINBIZIAREN KONTRAKO KANPAINA

10:00/13:00. Minbiziaren Aurkako Elkarteak azaleko minbiziaren arriskuez ohartaraziko dute jendea. Muzategi kalean.

TORIBIO ETXEBARRIA SARIK

11:00. Toribio Etxebarria sariaren 27. edizioko sariak banatzeko ekitaldia. Tekniker Fundazioaren eraikinean.

Eguena 13

PUZGARRIAK ETA TAILERRA

17:30/19:30. Puzgarriak eta umeendako txapa-tailerra. El Corte Ingleseko terrazan, 3. pisuan (euria egingo balu, beste egun batean).

ODOL-EMATEA

18:30/20:30. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

KALERATZEAK STOP

19:00. Kaleratzeak Stop plataformakoen bilera irekia. Portalean (3. pisuan).

SAN KRISTOBALGO JAIK

19:00. Futbolin-txapelketa. Alkorta tabernan.

22:00. Igel-toka txapelketa. Xania tabernan.

Erakusketak

Uztailaren 7tik 14ra:

– LAMBRETTA MOTORREN erakusketa.
(*Eibarko kolaboratzaileen dendetan*)

Uztailaren 31ra arte:

– FERNANDO ALONSOREN argazki-erakusketa.
(*El Ambigu tabernan*)

– "EIBARKO ARGAZKI RALLYA 2017" erakusketa.
(*Portalea jatetxean*)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, JOKIN, bihotz bihotzez, zure 10. urtebetetzian. Beñat, gurasuak eta etxekuen partez.



Zorionak, UGAITZ, ekaiñaren 25ian 8 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Ongi etorri, MAREN Txurruka Sampayo, ekaiñaren 22xan jaixo ziñan-eta. Zorionak etxeko guztiori.



Zorionak, AMAIA, bixar 11 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ISABEL Lekunberri, atzo 50 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IZEI, zure bigarren urtebetetzian. Famelixa guztiaren eta, batez be, zure anaixa Iban eta lehengusu Aratzen partez.



Zorionak, JOANE!!!, bixar 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Saioaren partez.




Zorionak, ANETTE, atzo 5 urte bete zenduaz-en-eta. Segi holako alai. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANER, eguaztenian 7 urte beteko dozuz-eta. Segi horren alai eta jator. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IZARO eta IRATI, astelehenian 3 urte bete zenduaz-en-eta! Musu haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, LUKEN, bixar 2 urte beteko dozuzelako, eta tia SILBIARI, aurreko zapatuan urtiak egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bana famelixaren partez.



Ongi etorri, LUKA Lopez Amas, San Juan egunetik gurekin zagoz-eta. Zorionak Iban eta Arianne gurasueri eta NOA arrebari.



Zorionak, LUR eta IZARO, domekan 8 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bana etxekuen partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Elgetan. Behe solairuan, 65 m², terraza (20 m²) eta garajearekin. Prezio negoziagarria: 139.950 euro. Tel. 644-387643. Maite.

1.2. Errentan

– Pisu argitsua alokagai urte osoan Donostiako Antigua auzoan, Ondarreta hondartzatik oso gertu. Tel. 616-816675.
– Pisua alokagai Jardinetan kalean, 3 logela eta terraza. Igoailua eta kalefakzioarekin. 450 euro hilean, komunitate gastuak aparte. Tel. 669-682148.
– Pisua alokagai Deban uda osorako, Itsasbegi kalean. Igerileku, frontoi eta garajearekin. Tel. 635-730841.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-649850.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Martxan dagoen ileapaindegia traspasatzen da Juan Gisasola, 8an. Tel. 688-822007 eta 943-530000.

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Asua-Erreka kalean. Tel. 616-959625.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Bi mutil eskaintzen dira tabernan jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-761423.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 637-135622.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-236749.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko (8 urteko esperientzia) eta garbiketarako egiteko. Tel. 642-650815.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko: igeltsero, pintore, laguntzaile... Tel. 698-438215.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
– Gizona eskaintzen da kamioia gidatzeko (C lizentzia), etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 603-066671.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-628137.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-406654.

– Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Asteburuetan barne. Tel. 658-458061.
– Emakumea eskaintzen da gauzez kamarera edo sukaldari jarduteko eta nagusiak ospitalean zaintzeko. Tel. 671-763558.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 666-197835.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-139806.
– Neska eskaintzen da arratsalde garbiketarako lanak egiteko. Tel. 632-682005.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 644-491651.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 630-254131.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia. Tel. 642-959172.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-521520.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-175651.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-613245.
– Gizona eskaintzen da tabernan ontziak garbitzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 616-328060.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-203613.
– Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 632-026510.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 680-981704.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Orduka. Tel. 658-310620.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Tel. 688-959575.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Orduka. Tel. 631-417922.
– Emakumea eskaintzen da pegorak, soziedadek eta bulegoak garbitzeko. Tel. 622-623216.
– Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 634-446252.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 632-166357.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Interna. Tel. 612-482203.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. Tel. 631-655390.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 629-889465. Miren.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 662-252150.
– Mutila eskaintzen da igeltsero eta margotze lanean jarduteko. Tel. 642-650816.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauzez eta asteburu eta jai-egunetan. Tel. 642-650900.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 688-818176.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrian lan egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 645-891307.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 661-025434.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-152685.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta sukaldean laguntzeko. Tel. 619-339881.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, astelehenetik ostegunera. Tel. 631-395471.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Gauzez eta asteburuetan ere bai. Tel. 697-665452 eta 632-978022.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-573554.

4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da Eibarko taberna baterako. Bidali curriculum: ofertasempleo.eibar@gmail.com
– Eibarko Kids and us-ek koordinatzailea behar du 2017-18 ikasturterako. Taldeak bideratu eta zuzentzeko gaitasuna, ingeles maila altua eta euskera eskatzen da. Bidali curriculum: eibar@kidsandus.es
– Ileapaintzailea behar da Eibarko ileapaindegia batean. Lanaldi luzerako. Tel. 653-012186.
– Kamarera/o euskalduna behar da Arrateko jatetxe batean lan egiteko. Tel. 943-208859 eta vcorada@gmail.com
– Ileapaintzailea behar da egun osorako Eibarren. Esperientziarekin. Abuztuan oporak izango lituzke. Tel. 619-928881.
– Pertsona euskalduna behar da irailetik aurrera umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 615-737483.
– Pertsona euskalduna behar da umeak eskolara eramateko. Tel. 622-004049 eta idatzihona@gmail.com
– Sukaldari-laguntzailea behar da asteburuak jatetxe batean. Autoa izatea baloratuko da. Tel. 620-810120.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bigarren eskuko DBH 3. eta 4. mailako liburak saltzen ditut. Tel. 653-705096.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu



» Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Matrikula

Uztailaren 13tik 19ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 ▪ 664 277 592

Arrate bezperako

IRAILAK 7 OSTEGUNA
KANTABRIA 21:00

BERTSO-AFARIA



ANDONI EGANA



MAIALEN UJANBE



SEBASTIAN UJAS



OÑAITZA EMBETA

SARRERAK SALGAI

- Uztailaren 14ra arte ...eta kitto!-n, bazkideentzat (31€)
- Hilaren 13tik aurrera, beste guztientzat, ohiko lekuetan: Kultura, Sagarbitza eta Kantabria tabernetan (32€)

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

RPS 53/13



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar